


# GHADI



**EL MUNDO, NUESTRA FAMILIA.  
ETXEAN BEZALA MAKALENAK LEHENAK.**

*El mundo, nuestra familia. Etxean bezala, makalenak lehenak* goiburua aukeratu da aurtengo ekitaldirako. Honen bitartez, zera gogoratu nahi da: gure mundu honek desberdintasuna, atsekabea, sufrimendua... eragiten dituela eta, askotan, familia dela euskarria, laguntzailea, zailtasunez jantzitako egoera hauetan. Goiburuak etxekotasuna hedatzeko diosku, mundu zuzen eta anaikoarragoa eraikitzeko, giza familia handia eratzeko eta familia handi bezala bizitzeko. Era berean, familiari senidetasun eta elkartasunaren, gizarte konpromisoaren eskola bezala dagokion balioa aitortzeko.

**IKUSIZ IKASI**  
X SEMANA DE CINE ESPIRITUAL

**EL MUNDO, NUESTRA FAMILIA**  
**ETXEAN BEZALA MAKALENAK LEHENAK**  
2017.KO MARTXOAREN 25ETIK ETA 31ERA • DEL 25 AL 31 DE MARZO DEL 2017

Sesión abierta	25 marzo	Sesión escolar	27 al 30 marzo	Sesión escolar y Cepto Diocesano	31 marzo
	La familia Belier		Little boy Aviones de papel (E) La familia Belier		Little boy Ghadi La familia Belier

ANTOLATZEAILE - ORGANIZAZ: **Bilboko Elizbarrutia**  
DIOCESIS DE BILBAO

PATROCINA • BARRUTIA: **ibaizabal**  
www.ibaizabal.org

[HTTP://IKUSIZIKASI.BIZKELIZA.ORG](http://ikusizikasi.bizkeliza.org)

**GHADI**

Pelikula: Ghadi

Zuzendaria: Amin Dora

Herraldea: Libano

Urtea: 2013

Iraupena: 100min.

Generoa: Comedia. Drama

Gidoia: Georges Khabbaz

Aktoreen zerrenda: Georges Khabbaz, Lara Rain, Emmanuel Khairallah, Camille Salameh, Rodrigue Sleiman, Samir Youssef, Caroline Labaki, Tarek Bacha, Giselle Boueiz, Christine Choueiri

**SINOPSISIA:** Leba musika-irakaslea Libanoko kostaldeko hiri bateko auzo txiki batean bizi da. Musika-irakasle bezala lan egiten du eta haurtzaroko emaztegaiarekin, Lararekin ezkontzen da. Senide, auzokide eta adiskideen harridurarako, bi haur elkarren segidan izan ondoren, Lara hirugarren aldiz geratzen da haurdun. Ghadi izena jarriko diote eta beharizan bereziak izango dituela ohartarazten diete sendagileek. Haurtxoa izateko moduan izango ote dira Leba eta Lara? Harrotasunerako arrazoi ala zama izango ote da Ghadi familiarentzat? Erditu ondoren, gertakari arraroak bizi eta jasan izango dituzte auzo txiki honetako herritarrek eta eragina izango dute bai beraiengan eta bai beraien sinesteetan ere. (FILMAFFINITY)

**BALORAZIOA:** Pelikula hau, egokia da bigarren hezkuntzakoentzat.

**PELIKULAN BARNERATUZ**

Ghadi samurtasunez beteriko pelikula da; desgaitasuna onartzeko dei egiten digun pelikula; bertan, *gaituenak* dira, hain zuen ere, gaitasun gutxien dutenak eta ahulenak, argi gehien eman dezaketenak.

Gai hauek lantzen dira pelikulan:

- Familiar bizia onartu, baina hauskorra eta menpekoa denean ere. Ahulenaren aldeko maitasun berezia.
- Gure bizitzan desgaitasuna duten pertsonak egoteak lagun arteko harremanak gizatiarrago bihurtzeko ematen digun aukera.
- Behar duenaren alde esku-hartzera garaman sormena eta ardura.
- Familiar bizi eta ematen den maitasunaren gaitasuna inguruaren eraldatzaile izateko.

**FITXA TEKNIKOA**

*Pelikulari buruzko datu batzuk. Nork egin du, noiz, non.*

Jatorrizko titulua:

Zuzendaria:

Herrialdea:

Urtea:

**LABURPENA ETA PERTSONAIK**

*Idatzi zazpi lerrotan pelikularen laburpena*

**PERTSONAIEN BALIOAK**

**Ghadi pelikulak jende gaituaren, jende arruntaren atzeratasuna erakusten digu. Bertan azaltzen zaizkigun bizilagunak gizarte nagusitu baten isla dira, gure gizartearen isla: hortxe bizi gara denok, hortxe gara bizikide geure handitasun eta miseriekin, berezkoa dugun norberekeriarekin, eskuzabaltasunera garamatzaten barra-aldiekin eta desberdinak diren haiek onartzeko egundoko zailtasunekin. Hirugarren eta laugarren ariketen bidez gure artean, Ghadiren auzoan bezala, gauza onak eta ez hain onak agertzen direla ikusiko dugu. Beharbada, ikusleak pelikulako pertsonaia onekin bat egingo dute, baina... zer gertatzen da hain onak ez direnekin? Ikuspuntu honetatik egin daitezke hirugarren ariketako galderak. Geure *atzeratasunez* jabetzea da kontua. *Balioak eta kontrabalioak* atalaz balia gaitzke pelikularekin erlazionatzeko. Abiapuntu egokia izan daiteke gizartean pentsatu aurretik. Eta balioen eta kontrabalioen zerrenda hori erabil dezakegu**

beraien inguruan ikusten dituzten balio eta kontrabalioez eta non edo norengan ikusten dituzten galdetzeko.

### **PERTSONAIAK EZAGUTUZ**

*Osatu koadroa, esaldia nork dioen esanez eta pertsonaia horren ezaugarriren bat aipatuz (Lara, Leba, Elias bizargina, Lello, Fawzi irakaslea)*

<b>ESALDIA</b>	<b>PERTSONAIA</b>	<b>EZAUGARRIA</b>
Ez da gure semea aingeru bat zuretzat?	LARA	
Nork ez du elbarritasunen bat?	FAWZI	
Ez dugu zertan jasan egoera hori	ELIAS	
Leba gizon ona eta gure auzokidea da	LELLO	
Fwazi jaunak hizkuntarik garrantzitsuena irakatsi zidan, bihotzaren hizkuntza	LEBA	

*Batez ere, zin pertsonaiarekin zatoz bat?*

*Zein jokaera izango nukeen honelako egoera batean?*

### **BALIOAK ETA KONTRABALIOAK**

*Lotu pelikulan agertzen diren kontrabalioak eta bizitzeko proposatzen dizuegun hauen aurkako balioak. Eman proposatutako balioen definizioa.*

#### **KONTRABALIOAK**

- itxurakeria
- marmarka aritu
- matxismoa
- norberekeria
- intolerantzia
- desberdinekiko aurreritziak

#### **BALIOAK**

- zintzotasuna
- goretsi
- berdintasuna
- elkartasuna
- tolerantzia
- onarpena

*Zer ematen du balio bakoitzak gizarte hobea egin ahal izateko?*

### **ELKARRIZKETARAKO:**

*“AINGERUA LURREAN”*

Batzuk, aingeruak direla lurrean esaten da, lagundu egiten dutelako, besteez arduratzen direlako, bihozberak direlako eta ingurukoak aldatu egiten dituztelako.

**Begiratu zeure ingurura eta bilatu** zeintzuk diren pertsona hobe izaten laguntzen dizuten aingeruak. Esan zergatik. Aipatu gutxienez bi:

*“NORK EZ DU ELBARRITASUNEN BAT?”*

Nahiz eta itxura batean iruditu ez, denok dugula elbarritasunen bat diotso musikako irakasleak LEBARI. Hainbat esamoldek baztertu eta iraindu egiten du. Zure ustez, zein da hitzik egokiena Ghadiz hitz egiteko? Azpimarratu aukerarik egokiena eta azaldu zergatik aukeratu duzun

- Desgaitasuna duten pertsonak
- Gaitasun anitzak dituzten pertsonak
- Ezinduak

*Ezagutzen duzu gaitasun anitzak dituzten pertsonekin? Zein hartu-eman duzu beraiekin?*

*Zertan hobe zaitezke, onartuak senti daitezzen?*

*Taldean batera jarri.*

*“EZ DA GURE SEMEA AINGERU BAT ZURETZAT?”*

Gahadirengandik ez aldentzeko edo herritik ez ateratzeko Lebak, Lara, Lello eta Karkarren laguntzarekin, herri guztiari ikusarazi nahi dio Ghadi benetan aingerua dena eta auzoko bizitza eraldatzen duena.

*Zein garrantzia izan du familiak Ghadiren bizitzan?*

*Eta auzoan?*

*Une zailetan familiak lagundu dizula islatzen duten bi kasu aipatu.*

*Inguruko nork laguntzen dizu pertsona hobe izaten?*

*Zure familiak lagundu die egoeraren batean auzo edota elkarteko pertsoneri?*

*Ipini adibide bat eta komentatu kideekin.*

### **BEGIRADA SINESTEDUNA: Irakurri Mk 10, 46-52**

“Jerikora iritsi ziren. Eta Jesus bere ikasleekin eta jendetza handiarekin hiritik irteterakoan, Bartimeo itsua, Timoteoren semea, eskean zegoen bide-ertzean eserita. Jesus Nazaretarra zela jakitean, oihuka hasi zen: “Daviden Semea, Jesus, erruki zakizkit!”. Askok gogor egiten zioten, isilarazteko; baina hark areago oihu: “Daviden Semea, erruki zakizkit!”.

Jesus gelditu eta hari dei egiteko agindu zuen. Dei egin zioten itsuari, esanez: “Izan bihotz! Jaiki, deika ari zaik”. Bere soingainekoa jaurtiz, salto batean zutitu eta Jesusengana joan zen. Jesusek galdegin zion: “Zer nahi duzu niregandik?”. Itsuak erantzun: “Berriro ikustea, Jauna”. Jesusek esan zion: “Zoaz, zeure sinesmenak sendatu zaitu”.

Une berean ikusmena etorri zitzaion berriro, eta Jesusen ondoren zihoan bidean.

*Zertan ari zen Bartimeo itsua? Zer egin zuen Jesus entzutean?*

**Bartimeok, Jesus entzutean, soingainekoa jaurti egiten du, besteak beste. Soingainekoa, segurtasuna ematen digula-eta, gogor atxikitzen dugun zerbait da. Ghadiren auzokoak beraien atzeratasun edo ezintasunei atxikita daude. Jaurti egin behar dituzte Ghadirengan eta beren buruarengan zerbait desberdina aurkitzeko. Soingainekoa jaurtitzean, desberdin begiratzen dute.**

*Nola jokutzen du jendeak Bartimeo itsuarekin? Eta Jesuek?*

*Zein irakaspem uzten digu Jesusek idazki honekin? Pentsatu gutxienez bi eta taldean esan.*

### **FRANTZISKO AITA SANTUA**

“Denok gara desberdinak eta ez dago inor beste inoren berdin denik... desberdintasunek beldurra ematen digute, desberdintasun larria duen norbaitekin bat egitea erronka delako... hala ere, desberdintasunak aberastasun dira”. “Nik gauza bat dut eta zuk beste bat, eta horrela zerbait handia egingo dugu”. “Aurreiritziak, kanporatzeak eta bazterketak ezabatuko dituen pentsamoldea eta estiloa haztean datza, senidetasun eraginkorra ahalbideratuz, baliotzat jo behar dugun aniztasunaren errespetuan”.

*Frantzisko aita santua desgaitasuna duten pertsonetako topaketan (2016ko ekainak 11)*

*Komentatu Frantzisko Aita Santuaren hitzak eta proposatu zer egin gaitasun anitzak dituzten pertsonak ez baztertzeko*